



Oraingoz Arkamu, Labraza eta Iturrietako proiektuak argitaratu dira Arabako Lurralde Historikoaren Aldizkari Ofizialean. ALEA

Parke eolikoek kontrako ahotsak

Mobilizazioekin batera, alegazioak batzen ari da Arabako Mendiak Aske plataforma; dagoeneko 3.000 alegaziotik gora lortu ditu eta maiatzaren 3ra bitartean jasoko ditu. Webgune bat sortu dute horretarako.

ERREDAKZIOA GASTEIZ

Arabako Mendiak Aske plataformak izapidetzen hasi diren Arkamu, Iturrieta eta Labrazako proiektu eolikoak bertan behera uzteko alegazioak jasotzen jarraitzen du, eta dagoeneko 3.000 baino gehiago lortu ditu. Besteak beste, zentral eoliko horien "eragin konponezina" argudiatzen da alegazioetan, eta egitasmoak "beregala eta

erabat" geldiaraztea ere eskatzen dute.

Lana errazteko, idazki horiek entregatzeko hainbat puntu bildu dituzte mapa batean. Mapaz gain, manifestua, alegazioak egiteko dokumentazioa eta proiektuaren inguruko informazio zabala topa daiteke plataformak martxan jarritako webgune berrian: arabakomendiakaske.mozello.com.

Maiatzaren 3ra arte jasoko dituzte alegazioak.

Orain arte lau parke eoliko berri sortzeko eskaerak aurkeztu ditu Aixeindar sozietateak (Energia Euskal Erakundea %40a, eta Iberdrola %60a). Parke horiek Azazetan (Arraia-Maeztu eta Bernedo) kokatuko lirateke, 40 MW-ko potentziarekin; Iturrietako mendietan (Arraia-Maeztu), 75 MW-rekin eta 15 aerosorgailuekin; Labrazan (Oion), 40 MW-rekin eta 8 aerosorgailu eta Arkamun (Erriberagoitia), 95 MW-rekin eta 19 aerosorgailuekin.

Oraingoz, azken hirurak dira Arabako Lurralde Historikoaren Aldizkari Ofizialean argitaratu direnak eta egitasmo bakoitzeko alegazio bat egin behar da. Beraz, hiru dokumentu bete behar dira. Azazetako zentral eolikoaren proiektua ez da publiko egin oraindik.

Maeztun eta Agurainen

Alegazioak jasotzearekin batera, mobilizazioak ere ugariatu dira asteotan. Asteazkenean bertan, Euskal Energia Erakundea (EEE) eta Iberdrolaren ordezkariak Azilu herrira egindako bisita dela eta, elkarretaraztea deituta zuen plataformak. Irurraiz-Gaunako administrazio batzarretako alkateei proiektu eolikoak aurkezteko bilera egitekoa zen egun horretan. Baina, Aziluko ez da deituta dagoen mobilizazio bakarra. Apirilaren 24an, 12:30ean, Maeztun elkartzeko deia egin du plataformak; eta maiatzaren 22an, 12:30ean, Agurainen.

Proiektu horien kontra dagoeneko agertu direnak mendizaleak dira. Arabako Mendizale Federazioak komunikatu bat plazaratu du esanez gaur egungo eredu energetikoaren aldaketa babesten duela, jasangarriagoa izan dadin eta ingurumena errespetatu dezan, baina kritikatu du transizio energetikorako bide horretan, "denak" ez duela balio.

Gogorazi duenez, proiektutako zentral eolikoetako batzuk "ingurumen kalitate handiko" mendilerroetan daude; izan ere, Arkamu mendilerroa eta Iturrietako Mendiak Kontserbazio Berreziko Eremuan (KBE) eta Europako Natura 2000 sare ekologikoaren barruan daude. "Zer zentzu du energia berriztagarrien alde egiteak ekosistemak suntsituz?", galdetu dute. Horrekin lotuta, mendizaleek azpimarratu



Alegazioak jasotzeko Gasteizen jarritako mahaia. ARABAKO MENDIAK ASKE

duite proiektu horien aurka daudela eta "lan-mahai baten" sorrera eskatu dute.

Bestalde, aipatutako proiektuez gain, asteon bertan jakin da Aramaion ere beste parke eoliko bat eraikitzeke haize-neurketak egin

nahi dituztela. Pasa den astelehenean eman da Arabako Aldizkari Ofizialean txostenaren hasierako pausoaren berri.

ARAMAION, 81 metroko dorrea

Hain justu ere, Arlaban mendatearen inguruan haize-neurketak egiteko lizentzia eskatu du Aixeindar sozietateak (Energia Euskal Erakundea %40a, eta Iberdrola %60a). Horren arabera, urbaniza ezina den Aramaioko lurretan, 81 metroko dorre bat eraikitzeke prozesua martxan jarri nahi dute. Dorreak bidez mantenduko da zutik, eta ez du zimentazio beharrik izango.

Kasu honetan, eskaera honi Arabako Foru Aldundian alegazioak aurkezteko epea 20 eguneko izango da.

ARABAKO MENDIZALE FEDERAZIOAK "LAN-MAHAI BAT" ERATZEKO ESKAERA EGIN DU

ARLABAN INGURIAN HAIZE-NEURKETAK EGIN NAHI DITU AIXEINDARREK



Parral
taberna

**menu begetarianoa eta gosariak
asteaz zehar - asteburuetan raziok
asteartero aktuazio kulturalak**

PARRAL@DNMAGMAIL.COM SAN FRANCISCO XABIER KANTOIA 4 TLF 945274633 GASTEIZ-ARABAI